

Laudio, 2026ko eikainaren 30an

## Laudioren etorkizunari begira, aurrera egiteko erabaki garrantzitsuak hartu ditu Udalbatzak

Laudioko Udalak atzo ekaineko ohiko osoko bilkura egin zuen. Bertan, herriaren etorkizunerako eta herritarren **ongizaterako garrantzitsuak diren hainbat inbertsio eta mozio onartu ziren**. Udal gobernu taldearen ustez, erakundeek erabakiak hartzeko gaitasuna erakutsi behar dute, herriaren interes orokorra lehenetsiz eta beharrezko akordioak bilatuz, Laudiok aurrera egiten jarrai dezan.

Ainize Gastaka alkateak nabarmendu duenez, "udalaren ardura erabakiak hartzea da baita herritarren beharrei erantzutea ere. Horretarako, ezinbestekoa da elkarrizketa, adostasuna eta guztion onerako lan egiteko borondatea. Laudiok ezin du geldirik geratu; aurrera egiten jarraitu behar dugu."

Inbertsioen atalean, **osoko bilkurak babesa eman zien hainbat partidari**. Horien artean daude Lautxirrinka talderako dirulaguntza, Eskubaloi Klubaren 50. urteurrena ospatzeko partida, haurreskolarako ekipamendua, gaztelekuko hornidura, Landaluze 27ko obrarako partida, Arrañoiko hirugarren sarbidea, udal mailako telekomunikazio-sistema berritzeko partida, Berrikusi aplikazioa eta tokiko merkataritza sustatzeko baliabideak.

Bestalde, aurkeztutako **beste hainbat inbertsio-proposamen ez ziren onartu**. Horien artean daude asfaltatze lanak, plan sanitarioa, Santa Ana

baserrian granja-eskola bat egiteko azterketa, baserriarren azoka indartzeko partida, Ermualderako itxitura eta panel informatibo berriak, udaleko guardien lan-baldintzak hobetzeko partida, Ugarterako petanka pista, anbulatorio zaharrear libratzean eraikinak dituen aukera sozialak, hala nola, gizarte zerbitzuak edo adinekoentzat espazioa egiteko azterketa, Alberto Acero inguruan aparkaleku bat egiteko azterketa eta herriko amiantoaren kentzeko partida.

Udal gobernu taldeak **proposamen horiek guztiak estrategikotzat** jotzen dituela adierazi du, eta **lanean jarraituko duela etorkizunean gauzatu ahal izateko**. Horretarako, elkarlana eta adostasuna ezinbesteko tresnak direla nabarmendu du, herriak dituen erronkei erantzun eraginkorra emateko.

Osoko bilkuran, halaber, **Laudioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana onartu zen**. Plan horrek datozen urteetarako udalaren berdintasun-politiken norabidea zehaztuko du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-arrakalak murrizteko helburuarekin.

**Mozioei dagokienez, aurkeztutako hiru proposamenek osoko bilkuraren babesak jaso zuten**. Aho batez onartu zen Omniak aurkeztutako babesleku klimatikoari buruzko mozioa. Era berean, udal gobernu taldeak aurkeztutako energia berriztagarrien kanonaren inguruko mozioa ere onartu zen, baita udal gobernu taldeak eta EAJk batera aurkeztutako mozioa ere, Foruen Abolizioaren 150. urteurrena eta Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena direla eta.

Bilkuraren balorazioa egiterakoan, alkateak azpimarratu du "Laudiok herri gisa dituen erronkei aurre egiteko guztion inplikazioa behar dela. Desberdintasun politikoak egon daitezke, baina udalaren egitekoa irtenbideak bilatzea eta

herritarren bizi-kalitatea hobetuko duten erabakiak hartzea da. Horretan jarraituko dugu, elkarlanerako prest dagoen gobernu talde gisa, Laudioren etorkizuna eta ongizatea beti erdigunean jarritz."